



Antón López de Aberasturirekin solasean

“Monumentu baten zaharberritzean planteatzen diren arazoak hirigintzaren teorian planteatzen diren berdinak dira”

Irudia: Ibai Gardiaga



Pep Romero eta Miriam Ibañez *

Gasteizen, Florida kalean duen estudioan bildu gara Antón López de Aberasturirekin zaharberritzearen inguruan egin dituen hainbat obraren xehetasunak ezagutzeko. Estudioko hormei begiradatzeko bat botaz gero, zintzilik ikus ditzakegu lerro hauen azpian garatuko ditugun obra batzuen lehiaketan panel eta planoak. Elkarriketa egiteko erabili dugun mahaian ez dago ezer hasieran; bukaeran, aldi, beharbada denborari aurka egiteko asmoz idatzit dituen hainbat liburu geratzen dira sakabanatuta estudioaren zaindari, garai batean Xabierko gazteluaren talaian izandako zelatarien antzera.

Noiz eta nola hasi zinen zaharberritzearen arloan lan egiten?

Kasualitatez izan zela esan daiteke. Karrera amaitu ostean, estudio batean hasi nintzen lanean, gutxi gorabehera jende guztiak egiten duen antzera. 2 edo 3 urte beranduago, Eusko Jaurlaritzara ezarri eta aldi berean deitu zidaten bertan lan egin ote nahi nuen galdetuz. Gai garrantzitsuak garatu behar ziren, hala nola Euskadiko Orkestra, Ertzaintza, eta abar, hau da, martxan jartzen ari ziren erakundeak. Lan horien artean, San Martin Toursekoaren eliza izan genuen, Urretxuko Udalak eskatutako diru-laguntza baten ondorioz. Hor egindako lana dela-eta, beste leku batzuetatik deitu zidaten antzeko lanak eskainiz.

Zaharberritze-lan batean zein momentu izaten da zailtasun handienekoa? Nola hasten duzu zaharberritze baten proiektua?

Momentu zailena eraikinaren diagnosiarena da. Hau da, eraikinaren berezko izaera ulertu beharra daukat, historian zehar izan dituen aldaketak eta birgaitzeak aztertu. Ideia garbi bat eduki behar dut lanean hasi ahal izateko (1).

Dena den, ez dut gustuko “zaharberritze” hitzaren erabilera, ezta ere “birgaitzearena”, nahiago ditut “interbentzio” edota “erabileraren egokitzapen” hitzak.

Azaldu iezaguzu hitz horien aukeraketaren zergatia.

Tira, zaharberritze hitzak berak diosku nolabait: “hasierako egoerara bueltatzea” (2). Ondarearen gaiarekin zerikusia duten obrak ez ditut sekula zaharberritze baten moduan ulertu, hau da, ez dut planteatzen jatorrian zuen egoerara bueltatzea. Alde

(1) Hain da estua momentu hau, ezen hurrengo irakurri baitezakegu berak idatzitako liburuan: “Únicamente diré que en el tiempo que duró la intervención, hurgando en sus entrañas, la antigua amistad ganó en intimidad (...). Incluso llegué a la convicción de que también la vieja casa me ponía a prueba, haciéndome preguntas como si de una maestra, o más aún, de una amante se tratara.” LOPEZ DE ABERASTURI, Antón (2010): *La Casa del Cordón, en la vida de la ciudad de Vitoria*

batetik, eraikinari bere arkitekturak eskatzen diona ematea, eta bestetik, arkitektura horrek eskaintzen duen interesateena erakustea, hori da gure xedea. Azken finean Vitruvioren kategoriaiak dira; *firmitas*, *utilitas* eta *venustas*.

Zure arloa hirigintza izanik, nolatan egiten dituzu hainbeste zaharberritze-lan?

Bai, behin edo behin gauza bera galdetu didate. Frantzian nengoela Françoise Choay-ekin egin nuen tesina. Bera filosofoa da, hirigintzari buruzko hainbat liburu idatzi ditu eta *Erregela eta Modeloa* (3) izeneko tesian hirigintzako bi oinarritzko teoriak alderatzen zituen. Erregelaren arabera, kasu batzuetan hiriaren eraikuntza printzipio batzuen bitartez ematen da, beste batzuetan Historian zehar izandako errealitateen gainjartze bidez. Modeloaren arabera, ordea, hiriaren eraikuntza aurrez ezarritako modelo baten bidez garatzen da, hirigintza-plan baten bidez alegia, ikuspegi utopiko batean. Hirigintzaren inguruko teoria hauek guztiak landu ondoren, 1992. urtean gaitzat ondarea zuen *Ondarearen alegoria* (4) izeneko liburua argitaratu zuen. Kritikariak gai-aldaketa honi buruz galdetu zioten eta berak zera erantzun zien: “Hiria monumentu bat da”. Ni guztiz bat nator esaldi horrekin, azken finean **hiria-arkitektura monumentu handiena baita, eta monumentu baten zaharberritzean azaltzen diren arazoak hirigintzaren teorian planteatzen diren berdinak dira.**

Albertik ere esaten zuen, “hiri bat eraikin handi bat besterik ez da, eta eraikin bat hiri txiki bat”.

Zaharberritze-lan batean egiten den berria oharkabean pasadadin saiatzzen zara edo guztiz kontrakoa?

Oro har, interbentzioa zein den garbi eta argi uztea hautatu izan dut. Horren adibide garbiena Albertik tenplu Malatestianoan egin zuena duzue. Tenplu hori gotikoa zen, Albertik konposizio klasiko bat planteatu zuen fatxadari eta barnealdean, elementu errenazentistak gehitu zituen, baina han lehendik zegoen gehiengo mantenduz, ez du planteatzen zuena disimulatzen. Oro har, arkitektura klasikoak Françoise Choayk aipatutako erregelaren arabera jokatu du, garaiko espirituaren

(2) Elkarriketa gaztelaniaz egin zen, eta gaztelaniazko “restaurar”-ekin ari gara, hau da, re-estaurar bezala banatuta.

(3) CHOAY, Françoise (1980): *La Règle et le Modèle: Sur la théorie de l'architecture et de l'urbanisme*. Éditions du Seuil (Paris). ISBN 2-02-030027-3.

(4) CHOAY, Françoise (1992): *L'Allégorie du patrimoine*. Éditions du Seuil (Paris). ISBN 2-02-014392-5.

arabera. Gainera, Ondarearen Legearen eta Veneziako Gutunaren arabera egoera txarrean egoteagatik jatorrizko arkitekturen degradatzen dituzten elementuak kendu daitezke soilik.

Beraz, **nik ez dut inongo dogma edo irizpide absoluturik, irizpide absolutu bat izatekotan eraikina ikertzea eta beregandik ikastea izango litzateke hau.**

Liburu gutxi batzuk ere idatzi dituzu...

Bai. Egiten dudan guztia dokumentatzea gustatzen zait, gauzen zergatia eta historia azaltzen dut bertan.

Badakigu eraikin singular ugariarekin lan egin duzula, etxebizitzarloan zaharberritzerik egin duzu?

Bai... bai, Alde Zaharrean bertan egin nuen interbentzio bat, garai hartako lehen esperimendua izango zena, oso interesantea gainera. Eusko Jaurlaritzan egin nuen azken lana izan zen, eskolan plaza bat lortu nuen baina Jaurlaritzan esan zidaten bateraezinak zirela; eskola aukeratu nuen.

Jesusen Zerbitzarien kalean 5 etxebizitzaren birgaitze-lana izan zen. **Alde Zaharreko sustapen publikoko lehen zaharberritze garrantzitsua izan zen. Teknika oso interesanteak probatu genituen.** Horietariko bi etxe oso interesanteak dira, harresiaren gainean eraikita daude, harresiko elementuak eta gaur egun arkeologi museoa dagoen XII. mendeko gazezur bat ere aurkitu genuen.

Zein da zure ustez zaharberritzeak hirigintzaren arloan izan behar duen zeregina?

Hemen adibidez Zaramagaren kasua dugu, non Estatu Batuetan 60ko hamarkadan Boston hiriarren bihotza hondatuz egin zutenaren antzera, eraispin bat egin eta trama berriko auzo bat planteatzen den. Nire ustez Zaramagako plan partzialak eta erakinek izugarriko interesa dute.

Madriren ere oso adibide ona dugu, Caño Rotoren herrixka, esaterako, *siedlung* itzel bat da, zeinak bi etxebizitza-tipologia baititu; indibiduala, barne-patio batekin, eta bloke-tipologia.

Eraikuntza bezala oso txarra da; arkitektura bezala, aldiz, arkitektura-maisuek eginga da eta hori segituan nabari da. Etxebizitza indibiduala tipologia aldapak gaintzeko erabiltzen da, dorreak kota altuetan jarrita daude, bista onak izatearren, hau da, oso ondo aztertuta dago dena. Auzoa zaharberritzea

proposatu zenean, inori ez zitzaion dena eraistea eta berria egitea otu, horren ordez, zituzten beharretara egokitzeko interbentzioak planteatu ziren. Indibidualetan ez zegoen etxebizitzak handitzeko arazorik; blokeetan, ordea, instalazioak hobetu eta igogailua jartzeaz gain, posible zenean hormarte berri bat gehitzea planteatzen zen. Era horretan, espazio-arazoak distribuzio malgu batez konpontzeaz gain, aldi berean puntako teknologiko fatxada bat lortzen zen, eguzki-kaptadore eta abarrekin hornituz. Erakina mantendu egiten da kasu honetan.

Hau da, nire ustez kontua 50 eta 60ko hamarkadetako arkitektura xume hau letra larriz idatzitako arkitekturatzat hartzean datza, jende beharretaz eginiko arkitektura, eraikuntza txar batez, baina aldi berean zentzuzkoa, oso pentsatua eta ondo ulertutakoa.

Noski, leku guztietan dago arkitektura itsusia, baina ezin da arinkeriaz hartu, hau bai eta hau ez esanez. Itsusia da? Ez du soluzio posiblearik? Orduan eraitsi eta puntu. Baina beste kasu batzuetan interbentzio puntual batzuen bidez konpondu dezakegu arazoa, jendea bere tokian utziz eta askoz merkeago gainera. Alde Zaharreko Erdi Aroko etxebizitzaren eduki soziala eta eraikuntza-tipologia mantentzeko ahaleginak egiten badira, zergatik ez dugu, bada, errespetu berdina izan behar funtzionalki eta eraikuntza aldetik Alde Zaharreko % 90a baino hobea den beste arkitektura honekin?


Laburbilduz, interbentzio bat egiterakoan uste dut arreta berdina izan behar dugula Ariznabarran zein Alde Zaharrean. Badakit ez dela oso ortodoxoa baina hori da nire iritzia.

Badirudi gaur egun arlo konkretu batean espezializatzea gero eta beharrezkoagoa dela, zer iritzi duzu horren inguruan?


Espezializatzea ona dela uste dut bai; izan ere, Boloniako planak duen gauza on bat hori da, espezializazioaren arazoa karreraren bertan garatzen dela. Bosgarren mailan hiru espezializazio-adarren artean aukeratu ahal izango da; Ondarearen Interbentzioa, Hirigintza eta Lurralde Antolamendua eta Berrikuntza Teknologikoa.

Aukeratzekotan, obra berria ala zaharberritze bat?

Obra berria zailagoa egiten zait, inprobisazio-lan bat egin behar duzu, agertokira gidoirik gabe ateratzen den aktorea bezala, zaharberritze batean baduzu nondik hasi, baldintzatuta zaude hasieratik. Hala ere biak egiten ditut, esaterako oraintxe Bermeon 167 etxebizitzaren proiektua bukatzen ari gara.



Kordoi etxea, sekzioa.



Kordoi etxea. Proposatutako egitura-soluzioa. Irudien iturria: Antón López de Aberasturi

Gasteizeko Kordoi etxea

Diru-arazoak izan genituen hemen, baina hori ona izaten da arkitekturan. Nik, oro har, ekonomia maximoa defendatzen dut, **kostua justifikatu beharreko obra batean arkitekturak eskertu egiten du azkenean, mota guztietako gehiegikeriak saihesten dituzu eta**. Hau bereziki zaharberritzetan gertatzen da gainera.

Kordoi etxearen arazoa egitura-arazo bat zen, hau zen konpondu beharreko lehen gauza. Vital Kutxako beste obra batekin genbiltzala, haientzat lan egiten zuen aparejadore bat etorri zen guregana, Kordoi etxean gustuko ez zituen arrail batzuk ikusi zituela esan zigun eta ea ikustera joan gintezkeen eskatu zigun.

Segituan joan ginen eta karezko testigu batzuk jarri genituen zer gertatzen zen ikusteko. Hurrengo egunean hauek irekita zeuden. Testiguak oso sinpleak eta finak ziren, ez zuten fibrarik ez ezer, baina eraikina mugitzen ari zela argi zegoen. Testigu gehiago jarri genituen eta gehienak ireki egin ziren, gainera ia zentimetro bateko arraila aurkitu genuen horma batean.

Erakusketen zaindari lan egiten zuenak esan zigun arraila hori lehen ez zegoela hor. Horretaz aparte, sala gotikoaren ganga batzuen giltzarriek makurdura handiegia zutela ikusten zen.

Goiko azken hiru pisuetan hogeit hamar pertsona inguru bizi zirenez, egin genuen lehendabiziko gauza zurkaizte bat izan zen, argi baitzegoen hori mugitzen ari zela, nahiz eta zergatia oraindik jakin ez genekien. Zurkaiztea egitean goian gertatzen ari zena segituan ulertu genuen. Emilio Apraiz arkitektoak, **urte batzuk lehenago erakusketa-erabilerarako egindako erreformaren ostean ordura arte kargan zeuden tabike batzuk kendu zituen, karga horiek transmisio bide berriak aurkitu zituzten albo-hormetan karga horizontalak sortuz, alegia. Gainera, dorrearen alboetan txarrantxatze-lana egiten zuten forjatuak kendu zituzten.**

Proiektua gauzatzera koan nik baldintza bezala jarri nien goiko pisuak eraikinarekin integratu eta dorreak bere berezko nortasuna berreskuratu behar zuela, nolabait iraganean izan zuen errealitatea berriz aurkituz.

San Martin de Tours eliza, Urretxu

Eliza bisitatzera joan ginenean ustekabe atsegin bat izan genuen. Hezetasun-arazoak aztertzen ari ginela hango apaizak atentzioa eman zigun, zera esanez: “hau guztia zurezkoa da, eh”, gu harrituta geratu ginen, Euskal Herri osoan ez zegoen horrelako Errenazimentuko beste eliza bat; gangak, petxinak, kapitel dorikoak... bikaina. Ontzigintzako eraikuntza erabili zuten, zuakerrak eta guzti, goitik ikusita itsasontzi bat zirudien, baina alderantziz jarrita. Egurraren egoera nahiko ona zen, profil batzuk sartu genituen elementu batzuk indartzeko baina ez genuen elementu bat ere ordezkatu. Gero babes total bat eman genion. Tratamendua egiterakoan eztabaida handi bat izan genuen; karea kentzean zura bistan geratu zen, egituraren zura haritza zen eta gangena gaztainondo, azken hauek bistan utzi edo berriz aurretik zegoena pintatzea erabaki behar genuen. **Chillidari kontsultatu genion eta honek materialaz hitz egin zuen; “zurezkoa dela ikusi behar da, auditorioetan ez da, bada, uzten bistan?”** gainera zurak ezaugarri akustiko bikainak eskaintzen zituen hemen, beraz, bistan utzi genuen, aurrerago beti izango genuen pintatzeko aukera, aurretik zegoena imitatuz.

Ondoren arkitektoen batek bere adostasun eza erakutsi du erabaki honen aurrean, Errenazimentuko arkitekturaren historia traizionatu dugula esanez. Viollet-le-Duc-en “unitate estilistikoa” haustu omen genuen. Nik zera pentsatzen dut; **hemen arkitektura baino gehiago artisautza-lana dago**, Euskal Herrian hain ohikoa izan den ontzigintzako eraikuntza eta material konkretu batekin egindako lana, zura alegia.

Gasteizeko San Migel eliza

Parrokoak estudiora hots egin zigun, zaharberritzeaz ulertzen genuela-eta ea elizara bisita bat egitea genuen eskatu zigun. Hamar urte lehenago estalkia berritu zutela baina ura edonondik sartzen ari zela esan zigun. Eliza bisitatu genuen eta tira, egoera ez zen oso ona, ez zegoen sekzio-planorik eta zeuden oinplanoak ez ziren oso fidagarriak, beraz estalkiaren eta gangen artean geratzen zena misterio bat zen. Gora igo ginen eta gauza bitxi dezente ikusi genuen; **estalkiak guztiz estaltzen zituen ostiko-arku batzuk zeuden, beste ostiko batzuk eraitsi egin ziren edo izugarritzko gilbordura zuten aurretik egindako handitze baten ondorioz. Handitze horretan badirudi hezetasun-arazoak ekiditeko estalkia kotaz igo zutela, estalki jarraitu bat lortuz.** Horren ondorioz ez zen antzematen eliza hiru nabe, portikoa eta albo-kaperez osaturik zegoela, guztia biltzen zuen estalki bat zen.

Tenplu gotikoa izanik, kanpotik hiru nabeak erakutsi behar zituen, ostiko-arkuak bistan utzi behar ziren, baita okuloak ere (ordura arte ezkutatuak eta beraz argia barrura sartu ezinik zeudelarik), hitz batean esanda, tenpluak bere unitate arkitektoniko eta estilistikoa berreskuratu behar zuen.

* Pep Romero eta Miriam Ibañez arkitektoen iradokizunak dira.



San Martin de Tours elizaren ganga goitik ikusita. Eraikuntza-xehetasuna.



San Migel eliza zaharberritzearen aurretik.



San Migel elizaren proposamena. Infografi a.